


'San Inazio eta bere garaia' kongresua hasi zen atzo Bilbon

Matrikula gutxi hogeitazazpi aditu bilduko dituzten ihardunaldietan

Entzule baino partehartzaile gehiago izango da Bilbon antolatutako 'San Inazio eta bere garaia' nazioarteko historia kongresuan. Joseba Arregi Kultura eta Turismo sailburua, Jesus Maria Egiluz errektorea eta Jose Alberto Pradera Bizkaiko diputatu nagusia izan ziren atzoko inaugurazioan.

BILBO



Deustuko Unibertsitateak hogeitamazazpi aditu bilduko ditu.

korronteak, Erdi Aroa eta Modernitatearen garaia eta beste solasaldiak izango dira Loiolako Inazioaren jaiozaren V mendeurrena ospatzeko.

Azken ihardunaldia ostiralean izango da Deustuko Unibertsitatean. Ekitaldi honetan Angel Sukia Espainiako Gotzainen Konferentziako presidentea eta Madril-Alcalako artzapezpikua mintzatuko da 'Loiolako Inazio eta Alcalako Unibertsitate' izeneko gaiari buruz. Hitzaldia euskara hutsez egingo du zaldibiarak bapateko itzulpen zerbitzuaren laguntzaz. Arregi ere izanen da kongresun.

Ostiralean, hilak 13, egingo du berba saindu euskalduna eta Luteroreformista protestanteari buruz antolatutako den mahainguruan. Olivier Pariseko Institutu Katolikoko; Kurt Victor Selge Berlineko Unibertsitateko; Heiko Oberman Arizonako Unibertsitateko; Hector Vall Barcelonako Teologia fakultateko; Adolfo Gonzalez Salamancako Unibertsitate Pontifikikoko ordezkaria; Andre Birmele Strasburg-eko Ikasketak Ekumenikoen Zentruko eta David C. Steinmetz EEBBetako Durham Unibertsitateko irakaslea.

Hirugarren adinekoen elikadurari buruzko ihardunaldiak Bilbon

G.A. / BILBO

Hirugarren adinekoek jarraitu beharko luketen elikadurari buruzko ihardunaldiak izango dira irailaren 16tik 20ra bitartean Bilbon. Ihardunaldi hauetan Europa zein Ertamerikako 36 adituk hartuko dute parte.

Antolatzaileen hitzetan, «ihardunaldien helburua hirugarren adinekoentzat elikadura egokia zein den eztabaidatu eta aztertzea da. Arazo honek garrantzi handia dauka, mendebaldeko herrialdeetan edadetuak gero eta gehiago direnean ezinbestekoa da elikadura estrategia berriak eztabaidatzea».

Ihardunaldi hauek Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udalak antolatu dituzte Munduko Osasun Elkartearekin batera. Eztabaida hauetako ondorioak Euskal Autonomi Elkarte osorako baliagarriak izango direla espero dute antolatzaileek.

Bost egun iraungo dituzten ihardunaldietan elikadura egokiaz gain, botiken eragina, psikiko eta fisikoki gaixo dauden zaharrentzat eskema dietetikoak eta egoera larrietan behar

dituzten elikadura ekarpen bereziak ere aztertuko dituzte.

Ihardunaldiak hilaren 16an hasiko dira, hirugarren adineko pertsonentzako elikadurari buruzko hitzaldi batekin. Ekitaldi honetan, Bilboko Udako Elikadura Unitateko buru den Javier Aranceta 'Bilboko hirugarren adineko hiritarren elikadura egoeraz' mintzatuko da.

Bigarren saioan, agureen taldeko berreziketa eta beraien elikadura arazo zehatzak jorratuko dituzte Olga Moreiras Madrilgo Unibertsitate Complutenseko medikuak eta Ana Sastre Ramon y Cajal ospitaleko medikuak. Hilaren hamazortziko ekitaldian egoera berezietako elikadura mota eta indarrean dauden programez arituko da Bangla Desheko Th. Bergmann irakaslea. Amaitzeko, Salas elikaduran aditua den medikua eta F. Grande Covian irakaslea arituko dira. Bi adituek, gero eta argiagoa omen den hiritarren bizi kalitate eta elikaduraren arteko harremana aztertuko dute. Ihardunaldi hauek erantzun zabala izan dute eta jadanik 150en bat lagunek izena eman dute.



Elikadurak adineko jendearengan duen garrantzia azpimarratuko da.

Zaraitzu eta Erronkariko artaldeekin Bardeetaraino, altxonbideetan barna

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Otsagiko Ekia elkarrekin Zaraitzu eta Erronkariko altxonbideetan zehar ibilbide zenbait antolatu du irailarako, aintzinatik Pirinioetako ibarretatik Bardeetarainoko bidea egiten duten artaldeekin batera. Lehendabizikoa aste honetarako dago iragarrita, eta irailaren 12tik 18ra, Zaraitzuko artaldeek jorratutako bidaiari ekingo diete ibiltariak. Antolatzaileek jana, materiala eta bere garraioa eta laguntzarako pertsonak paratuko dituzte, baina partaideen kopurua mugatua izango da, artalde eta artzainaren eguneko ibilbidearentzako traba izan ez daitezen.

Ekitaldi hau ez da guztiz berria, iaz ere Erronkariko altxonbideetan barrena beste ibilbidea antolatu bait zuen talde berak. Orduan Uztaizko artzain baten laguntzaz egin zuten zeharkaldia, Erronkariko herriatik Bardeetaraino. Aurten, Otsagiko kanpinean bilduko dira partaideak, eta antolatzaileek hor emango dituzte aditzera bidaiaren inguruko zehaztasun guztiak. Bestalde, hilaren 25tik 29ra arte, Erronkariko altxonbidearen zeharkaldia ere antolatu du Ekia.

Zaraitzu eta Erronkariko artaldeak Bardeetara joateko ohitura aintzinetik dator, eta altxonbideak artaldeendako espreski egindako bideak dira, urte osoan errespetatu beharrekoak. Irailean hasten dituzte bidaiak artzainek, eta astebetean Bar-



Ardiak hegoaldeko pentzeetara eramaten dituzte sasoi honetan.

deetarainoko bidea egiten dute, bertako zelaietan urte amaierara arte egoteko. Bidean trikuharri, zutarri, eta ondare artistiko eta natural franko ikus daitezke, landaretzaren aldaketa anitzekin.

Eguna goizeko zortzietan hasten du taldeak, eta gabeko zortziak arte edo, hamar ordu inguru izaten da eguneko marka. Iaz hasi zen espe-

rientzia «zeharo positiboa» izan zela dio partaide batek, «berezi artzainen jarreragatik». Hala ere, badaude bete beharreko arauak, eta lehendabizikoa ardiei enbarazu ez egitea da. Hori eta, artzainek euren ohiturak badituztela onartzen bada, egun ederak pasatzeko aukera ezin hobe eskaintzen dute Ostia Otsagiko kanpinetik.

EEK kontzientzi eragozpenaren arazoa konpon dezala eskatu dio Gobernuari

BILBO

EEK «borondate bakezalez» kontzientzi eragozpenaren arazoa konpon dezala eskatu dio Gobernuari. «Zerbitzu Militarra ez egitea erabaki duten gazteek horren ondoren jakitun izanik, desobedientzi zibilaren bidea hartzen dute, beraien kontzientziaren aurkako legedia bide demokratikoz errefusatzeko. Horregatik, objektoreen aurkako bide errepresiboa salatzen dugu», dio Euskadiko Ezkerrak igorritako prentsa agiriak.

Iturri berberen arabera, gazteen % 50ek Zerbitzu Militarra ez egitea erabaki du, «eta objektzioaren bidea hartu du Gobernuari Armadari buruzko iritzia emateko. Horregatik, Zerbitzu Militarren lege berria Legebiltzarrean eztabaidatzeko den

une honetan, Gobernuak aukera ezin hobe du Zerbitzu Militarren arazoi konponbidea aurkitzeko».

Kontzientzi eragozpenaren bidea hartu duten euskal gazteen kopurua «orain urte batzuk pentsaezina zela» adierazi du EEK. Talde antimilitarista eta bakezaleei Zerbitzu Militarren legearen eztabaida «ondo presatzeko deia egin» die, «Gobernuak ukatzen dituen jarrera bakezaleak batasun eta duintasunez defendatzeko».

DURANGOKO

KURUTZIAGA IKASTOLAK

O.H.O.ko tutoretzarako ingelesaren ezaguera duen irakaslea behar du. Interesatuak aurkez bezate curriculumak irailaren 12rako KURUTZIAGA IKASTOLAN: Bruno Maurizio Zabala, 11. DURANGO. 48200 BIZKAIA. 130 POSTAKUTXA.

AFRIKA TABERNA



Carmen kalea, 19 IRUÑA